



## EUSKALDUNA

Euskararekin eta euskal kulturarekin pertsona konprometitu naiz. Euskara erabili eta euskal kultura bultzatzen duten ekintzetan parte hartzen dut, munduko euskal hiritarra izateko eta euskararen nahiz euskal kulturaren biziraupena bermatzeko.

## KRITIKOA

### Kritikoa

Egoerak era kritikoan aztertzen ditut eta, informazio fidagarria bilduz eta aztertuz, iritzi propioa garatzeko gai naiz.

### Autoestimua dut

Neure burua ezagutu eta baloratzen dut. Nire indargune eta ahuleziak identifikatzen ditut, modu orekatu eta osasungarrian harremanak izateko eta jarduteko.

## ELEANITZA

Ikastolan lantzen diren hizkuntzak eraginkortasunez erabiltzen ditut eta hizkuntzen lau gaitasunetan (ahozko adierazpena, adierazpen idatzia, entzunaren ulermena eta irakurriaren ulermena) trebetasuna erakusten dut, Euskal Herritik abiatuta, munduko biztanleekin komunikatzeko eta elkarreragiteko.

## KONPETENTEA

### Konpetentzietan trebea

Eguneroko bizitzan gertatzen diren erronkei irtenbide egokia ematen diet, edozein motatako egoerak konpontzeko behar diren baliabideak erabiliz; era horretan, gizartearen konplexutasunari aurre egiten diot.

### Parte-hartzailea

Neure buruarekiko segurtasuna izanik, taldearen onurarako aritzen naiz. Nire ekarpenak errespetuz komunikatzen ditut eta hartu-emanetan inplikatzeko naiz gizartearen parte-hartzaile aktiboa izateko.

### Elkarlanean jarduten dut

Besteen iritziak entzunez, errespetatuz eta kritikoki elkarlanean jardunez, nire ardurak betetzen ditut taldean ezarritako helburu komunak lortzeko.

## AUTONOMOA

### Autonomoa

Neure buruarekin konfiantza daukat eta erabakiak hartzen ditut. Badakit zeintzuk diren nire indarguneak nahiz ahulguneak eta, hortik abiatuta, eguneroko beharrei erantzuten ahalegintzen naiz.

### Arduratsua

Neure buruarekiko eta besteekiko betebeharrak argi ditut eta elkarbizitzaren arauak nahiz egitekoak onartu eta betetzen ditut, nire garapen pertsonala sustatzeko eta gizartearen egoki jarduteko.

### Lan ohitura egokiak ditut

Eguneroko eginbeharrak planifikatzen dakit sortzen diren erronkei modu eraginkorrean aurre egiteko, beharrak identifikatuz, lehenetsunak ezarri eta era autonomo nahiz arduratsuan lan eginez.

## ADEITSUA

### Adeitsua

Besteekiko eta naturarekiko errespetua dut gizabanakoaren askatasuna bermatzeko eta gure ingurunea eta bizimodua babesteko, besteen beharrak aintzat hartuz eta modu jasangarrian biziz.

### Ezagutza eta gaitasun artistikoa dut

Arte motak ezagutu, baloratu eta errespetatzen ditut, pertsonen alde artistikoa eta estetikoa garatzeko eta emozioen komunikazioa sustatzeko.

### Osasuntsua

Neure burua zaintzen dut, dieta osasuntsua mantenduz, jarduera fisikoak eginez, higiene egokia izanik eta sexualitatea era egokian biziz. Horrela, neure gorputza eta buruaren garapen orekatua, aberatsa eta iraunkorra lortzen dut.

## EUSKALDUN

Soy una persona comprometida con el euskara. Participo en las actividades que se desarrollan en esta lengua o que apoyan su cultura, para ser ciudadano/a vasco del mundo y para impulsar la supervivencia de la lengua y la cultura vascas.

## CRÍTICO/CRÍTICA

### Crítico/a

Analizo las situaciones con una visión crítica y soy capaz, recopilando y analizando información fiable, de formar mi propia opinión

### Tengo autoestima

Me conozco a mí mismo/a y me valoro como persona. Soy capaz de identificar mis fortalezas y debilidades, lo cual me permite interactuar y relacionarme con los demás de una forma sana.

## PLURILINGÜE

Utilizo de forma eficaz las lenguas que se trabajan en la ikastola y las practico con destreza en sus cuatro dimensiones básicas (expresión oral, expresión escrita, comprensión oral y comprensión lectora). De esta forma, partiendo de Euskal Herria, soy capaz de comunicarme e interactuar con personas de otras partes del mundo.

## COMPETENTE

### Competente

Respondo adecuadamente a los retos que me presenta el día a día, utilizando los recursos necesarios y demostrando que estoy preparado/a para desenvolverme en la complejidad de nuestra sociedad.

### Participativo/a

Aporto al grupo, con seguridad en mí mismo/a. Comunico mis opiniones con respeto y me implico en las discusiones, demostrando que soy capaz de participar activamente en la sociedad.

### Colaborativo/a

Coopero con el grupo cumpliendo con mis tareas de forma responsable, para alcanzar objetivos comunes, participando de forma crítica, respetuosa y escuchando las opiniones de los demás.

## AUTONOMO/AUTONOMA

### Autonomo/a

Confío en mí mismo/a y tomo decisiones. Sé cuáles son mis fortalezas y conozco mis debilidades. Partiendo de ahí, soy capaz de responder a las necesidades del día a día.

### Responsable

Tengo claras mis obligaciones y respeto y acepto las normas de convivencia necesarias para favorecer mi desarrollo personal y la convivencia con los/as demás.

### Mis hábitos de trabajo son adecuados

Soy capaz de planificar para poder hacer frente a los retos que surgen en el día a día de manera eficaz, identificando necesidades, estableciendo prioridades y trabajando de manera autónoma y responsable.

## RESPECTUOSO/RESPECTUOSA

### Respetuoso/a

Me muestro respetuoso/a con las personas y con la naturaleza, y entiendo esta actitud como una vía para garantizar la libertad del individuo y proteger nuestro entorno y modo de vida, atendiendo a las necesidades de los demás y tratando de vivir de una forma sostenible.

### Tengo conocimientos e inquietudes artísticas

Conozco, valoro y respeto las distintas manifestaciones artísticas, ya que me ayuda a desarrollar mi faceta artística y estética y a desarrollar mi comunicación emocional.

### Saludable

---

Me preocupo por mi salud, siguiendo una dieta saludable, haciendo ejercicio físico, con higiene adecuada y viviendo mi sexualidad de forma sana. De esta forma consigo un desarrollo equilibrado, rico y duradero de mi cuerpo y de mi mente.